Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

Boletín Oficial de Gipuzkoa

2022ko urriaren 11, asteartea — 193 — Martes, a 11 de octubre de 2022



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA

*Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik (BEEP) datozen Europako funtsekin finantzatzen diren berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2022ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2022ko urriaren 4an:

COVID-19ak sortutako pandemiaren ondorioz, Espainiako Gobernuak Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (BEEP) izeneko inbertsio eta erreforma plan bat jarri zuen abian, hiru helbururekin: osasun krisiaren ondoren berreraikitzea epe laburrean babestea, egiturazko eraldaketa prozesu bat bultzatzea epe ertainean, eta ekonomiaren, finantzen, gizartearen, lurraldearen eta ingurumenaren ikuspegitik garapen jasangarriagoa eta erresilienteagoa lortzea epe luzera.

Testuinguru horretan, Next Generation EU finantzaketarako Erkidegoko tresna berriek 140.000 milioi euro emango dizkiote Estatuari transferentzietan eta kredituetan 2021-2026 aldian, eta Europa mailan lehentasunezko eremuetan inbertsioak eta erreformak bultzatzeko Urte Anitzeko Finantza esparruan aurreikusitako gainerako tresnei gehituko zaizkie.

Aurreikusita dago zenbateko horren zati bat, Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, aipatutako planaren helburuak betetzen dituzten Gipuzkoako Lurralde Historikoko inbertsio eta proiektuetara bideratzea.

Plana lau ardatzetan banatzen da, eta herrialdearen etorkizuneko bilakaera zehazten duten hamar palanka politiketan hedatzen da. Eta palanka politika horietako bat, VIII. politika, zainketen ekonomia berria eta enplegu politikena da.

Ildo horretan, Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioak BEEP planaren 22. osagaiko («Zaintzen ekonomia eta berdintasun eta gizarteratze politikak indartzea») erreforma eta inbertsioen zerrenda bat aurkeztu zion Europako Batzordeari.

Bertan, gauzatuko diren proiektu motak, horien helburu nagusiak, helburu horiek zehazteko aukera ematen duten adierazle batzuk eta planak irauten duen hiru urteetan inbertsio mota bakoitzari dagokion aurrekontua zehazten ziren.

Guztira 5 inbertsio lerro proposatu dira, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak interesgarritzat jo du eta bi inbertsio lerro hauekin lotutako proiektuak aurkeztu ditu:

1. C22.I1-Iraupen luzeko babes eta zaintza plana: iraupen luzeko zainketetarako ekipamendu publiko berriak hornitzea, pertsonan eta ingurune komunitarioetako arretan oinarritutako arkitektura berrian oinarrituta, eta dauden ekipamenduak birmoldatzea eta egokitzea.

Gauzatu beharreko proiektua: 4. proiektua, Gipuzkoako adinekoentzako egoitza-zentroen sarea bizikidetza-ereduetara egokitzea.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES

*Bases reguladoras y convocatoria 2022 para la concesión de subvenciones a proyectos sociales de innovación que se financia con fondos europeos procedentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 4 de octubre de 2022:

Como consecuencia de la pandemia originada por el COVID-19, el Gobierno de España puso en marcha un plan de inversiones y reformas denominado Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) con un triple objetivo: apoyar a corto plazo la reconstrucción tras la crisis sanitaria, impulsar a medio plazo un proceso de transformación estructural, y llevar a largo plazo a un desarrollo más sostenible y resiliente desde el punto de vista económico-financiero, social, territorial y medioambiental.

En este contexto, los nuevos instrumentos comunitarios de financiación Next Generation EU proporcionarán al Estado hasta 140.000 millones de euros en transferencias y créditos en el periodo 2021-2026, que se unirán al resto de instrumentos previstos en el Marco Financiero Plurianual para impulsar inversiones y reformas en los ámbitos prioritarios a nivel europeo.

Está previsto que una parte de este importe se pueda destinar, en coordinación con el Gobierno Vasco, a aquellas inversiones y proyectos del Territorio Histórico de Gipuzkoa que cumplan con los objetivos del citado Plan.

El plan se divide en cuatro ejes que se despliegan en diez políticas palanca que determinan la evolución futura del país. Y una de estas políticas palanca, la VIII, es la nueva economía de los cuidados y políticas de empleo.

En esta línea, el Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 presentó a la Comisión Europea una relación de las reformas e inversiones del componente 22 del PRTR («Economía de los cuidados y refuerzo de las políticas de igualdad e inclusión»).

En ella se definían el tipo de proyectos que se van a llevar a cabo, sus objetivos principales, algunos indicadores que permiten concretar esos objetivos y el presupuesto que se corresponde con cada tipo de inversión a lo largo de los tres años de duración del plan.

En total se han propuesto 5 líneas de inversión, de las cuales la Diputación Foral de Gipuzkoa ha considerado de interés y ha presentado proyectos relacionados con las dos siguientes líneas de inversión:

1. C22.I1-Plan de apoyos y cuidados de larga duración: dotación de nuevos equipamientos públicos para cuidados de larga duración basados en una nueva arquitectura centrada en la persona y en la atención en entornos comunitarios, y remodelación y adaptación de los equipamientos existentes.

Proyecto a ejecutar: proyecto número 4, Adaptación de la red de centros residenciales de personas mayores de Gipuzkoa hacia modelos convivenciales.

EK\CV GAO-I-2022-06252

2. C22.I2-Gizarte Zerbitzuak Modernizatzeko Plana: gizarte zerbitzuetako berrikuntzako proiektu pilotuak.

Gauzatu beharreko proiektua: 15. proiektua, Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030/Gipuzkoa.

Dirulaguntza horiek bat datoz Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza-hitzarmenean jasotako proiektuen zerrendako 4. eta 15. proiektuekin, berreskurapenerako eta erresilientziarako mekanismotik datozen Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko 2021eko urriaren 30eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratua 260 zk.

Helburu honekin, Diputatuen Kontseiluak 2021eko azaroaren 30ean egindako bilkuran oinarri arautzaile orokorrak eta espezifikoak onetsi zituen eta baita ondoren adierazten diren dirulaguntza ildoen 2021eko deialdia ere:

1. Iraupen luzeko zaintzetarako ekipamendu kolektibo berriak jartzeko dirulaguntzak.

2. Gizarte zerbitzuetan, berrikuntzako proiektu pilotuak diseinatzeko eta abian jartzeko dirulaguntzak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak Zorroari buruzko Dekretuan zerrendatutako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen prestazioa arautzen du. Foru Aldundiei esleitutako eskumenen artean, gizarte zerbitzuen arloko arretaren kalitatearen hobekuntza eta berrikuntza eta ikerketa sustatzea dago, gainerako euskal administrazio publikoekin koordinatuta.

Bere aldetik, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuetako Mapa plangintza tresna bat da, gizarte zerbitzuen sistemaren hedapena ezartzen duena onesten den aldirako aurreikusita dagoen eskaerari erantzuteko.

Maparen helburuen artean etxeko arreta osoaren aldeko apustua dago eta baita zerbitzuen eta prestazioen eskaintzaren kalitatea hobetzea, pertsonen beharren arreta egokia bermatzeko haien ingurunetik ahalik eta gertuen.

Helburu honekin, berriz ere eta antzemandako premien arabera, Gizarte Politiketako Departamentuak bultzatu nahi du laguntza ekonomikoen plan bat gizarte berrikuntzako proiektu esperimentalak abian jartzeko, zaintzen tokiko ekosistema lokala sortzea bideratuta, erabiltzaileek beren etxeetan dituzten premiak modu integral eta integratuan asetzeko, beste bi ildorekin osatu da, honako jarduera hauek barne hartuta:

— Gizarte berrikuntzako proiektu pilotuak (aurretik aurreikusi gabeko erabiltzaileen profiletarako).

— Etxeko zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berrien ezarpena edo egungo zerbitzuen egokitzapena finantzatzeko.

Gizarte berrikuntzako proiektu pilotuen helburuak eta erakunde onuradunak guztiz bat datoz, baita osatuz ere, gizarte zerbitzuen arloko berrikuntzako proiektu pilotuak diseinatzeko eta abian jartzeko dirulaguntzen 2. ildoarekin. Ildo hori 2021eko deialdian garatu zen, eta Gizarte Eskubideetako eta Agenda 2030eko Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko sinatutako lankidetza hitzarmenaren 15. proiektuari dagokio, Europako funtsen kargura suspertze eta erresilientzia mekanismotik datozen proiektuak gauzatzeko. Hitzarmen hori 2021eko urriaren 30eko *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu zen, 260. zenbakian.

Deialdi honen eta aurreko deialdiaren edukiaren arteko lotura ikusita eta laguntza horien ikuspegi globala mantentzeko asmoz, aurreko dirulaguntzaren bigarren lerroa beste bitan banatuko da, eta aurreko lerroa 2.1 deituko da eta egungoa 2.2.

2. C22.I2-Plan de Modernización de los Servicios Sociales: proyectos piloto de innovación en servicios sociales.

Proyecto a ejecutar: proyecto número 15, Gipuzkoa Zaintza Lurraldea 2030/Gipuzkoa.

Estas subvenciones se corresponden con los proyectos número 4 y 15 de la lista de proyectos incluidos en el convenio de colaboración entre el Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 y la Administración General del País Vasco para la ejecución de proyectos con cargo a los fondos europeos procedentes del mecanismo para la recuperación y resiliencia, publicado en el *Boletín Oficial del Estado* número 260 de 30 de octubre de 2021.

Con este propósito el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión del 30 de noviembre de 2021, aprobó las bases reguladoras generales y específicas, así como la convocatoria 2021 de las siguientes líneas de subvención:

1. Subvenciones para la dotación de nuevos equipamientos colectivos para cuidados de larga duración.

2. Subvenciones para el diseño y puesta en marcha de proyectos piloto de innovación en servicios sociales.

La Ley 12/2008, de 5 de diciembre, del Sistema Vasco de Servicios Sociales regula la prestación de los servicios del Catálogo de Prestaciones y Servicios enumerados en el Decreto de Cartera. De entre las competencias atribuidas a las diputaciones forales, se encuentra el fomento y la promoción, en coordinación con las demás administraciones públicas vascas, de la mejora de la calidad de la atención y de la innovación e investigación en materia de servicios sociales.

Por su parte, el Mapa de Servicios Sociales de Gipuzkoa constituye una herramienta de planificación que establece el despliegue del sistema de servicios sociales para cubrir la demanda potencialmente prevista en el periodo para el que se aprueba.

Entre los objetivos del Mapa se encuentra el apostar por la atención integral en el domicilio, así como mejorar la calidad de la oferta de servicios y prestaciones para garantizar una atención adecuada a las necesidades de las personas lo más próxima posible a su entorno.

Con esta finalidad, nuevamente y de acuerdo con las necesidades detectadas, el Departamento de Políticas Sociales quiere impulsar el plan de ayudas económicas para poner en marcha proyectos experimentales de innovación social destinados a generar un ecosistema local de cuidados que permita satisfacer las necesidades de las personas usuarias en sus domicilios de una forma integral e integrada, completándolo con otras dos líneas que abarcan las siguientes actuaciones:

— Proyectos piloto de innovación social (para perfiles de personas usuarias no previstas con anterioridad).

— Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio.

Tanto los objetivos como las entidades beneficiarias de los Proyectos piloto de innovación social se alinean perfectamente, completándolo incluso, con la línea 2, subvenciones para el diseño y puesta en marcha de proyectos piloto de innovación en servicios sociales, desarrollada en la convocatoria de 2021, y que corresponde al proyecto n.º 15 del convenio de colaboración entre el Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 y la Administración General del País Vasco para la ejecución de proyectos con cargo a los fondos europeos procedentes del mecanismo para la recuperación y resiliencia, publicado en el *Boletín Oficial del Estado* número 260 de 30 de octubre de 2021.

Dada la relación del contenido de esta convocatoria con respecto a la convocatoria precedente y con el ánimo de mantener una visión global e integradora de estas ayudas, la línea dos precedente se dividirá en otras dos, pasando la línea anterior a denominarse 2.1 y la actual 2.2.

EK\CV GAO-I-2022-06252

Aldi hartan, berrikuntzako proiektu pilotuetarako dirulaguntzak adineko pertsonei zuzenduta zeuden eta kasu honetan, berriz, laguntzak zuzenduta daude haurren eta nerabeen babesari, indarkeria matxistaren emakume biktimen babesari, desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta independentziaren sustapenari, eta gizarteratzeari.

2. ildoa-Gizarte berrikuntzako proiektu pilotua, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023 (DPE) planaren barne dago.

Aldi berean, helburu berarekin, aurreko deialdi horri hirugarren lerro bat gehitu zaio.

3. ildoa-Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko ez dago 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan (DPE) sartuta. Beraz, ildoa ezarri aurretik, eta Dirulaguntzen Plan Estrategikoak 3.1 apartatuan daukan aurreikuspena aplikatuz, bidezko da plan horretan sartzea.

Bi ildo horiek garatzeko, aurrekontu hau dago:

| *Ildoa* | *Urtea* | *Zenbatekoa (€)* |
|---|---|---|
| 2.2 | 2022 | 100.000 |
| 2.2 | 2023 | 175.000 |
| 3 | 2022 | 400.000 |
| 3 | 2023 | 200.000 |
| Guztira | | 875.000 |

Oinarri arautzaile hauetan jasotako laguntzak ez dira estatuko laguntzak, estatu kideen arteko trukeetan eraginik ez dutelako, eta, hala badagokio, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuko 107. artikuluarekin bateragarriak dira.

Erabaki honen xedea da:

— Gizarte-berrikuntzako proiektuen 2. lerroa honako ildo hauetan banatzea:

2.1 lerroa: adinekoei zuzenduta.

2.2 lerroa: haurren eta nerabeen babesari, indarkeria matxistaren emakume biktimen babesari, desgaitasuna duten pertsonen autonomia eta independentziaren sustapenari, eta gizarteratzeari zuzenduta.

— Sartzea 3. ildoa-Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2020-2023 (DPE) planaren barruan.

— 2.2 eta 3. ildoetarako oinarri orokorrak eta espezifikoak onartzea.

— 2022ko deialdia onartzea 2.2 eta 3. ildoetarako.

— Baimentzea 875.000 euroko gastua, dirulaguntzaren aurrekontu osoari dagokiona. Diputatuen Kontseiluak du horretarako eskumena, baimendu beharreko gastua ikusita.

Hori dela eta, Diputatuen Kontseiluak, Gizarte Politiketako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Sartzea 3. ildoa-Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Dirulaguntzen 2020-2023 Plan Estrategikoan. Ildo hori Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik (BEEP) datozen Europako funtsekin finantzatzen da.

*Bigarren.* Erabaki honen xede diren Dirulaguntzak emateko prozedura presaz izapidetzea, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana betearazteko premiazko neurriak onesten dituen abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

En aquella ocasión las ayudas, para los proyectos piloto de innovación, se orientaron a personas mayores y en este caso las ayudas se destinarán a la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, al fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y a la inclusión social.

La línea 2-Proyectos piloto de innovación social, está incluida en el Plan Estratégico de subvenciones 2020-2023 (PES).

Así mismo, con el mismo fin, se añade una tercera línea a la mencionada convocatoria precedente.

La línea 3-Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio, no se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES). Por tanto, previamente a su establecimiento y en aplicación de la previsión contenida en el apartado 3.1 del PES, procede su inclusión.

Para el desarrollo de estas 2 líneas se cuenta con el siguiente presupuesto:

| *Línea* | *Año* | *Importe (€)* |
|---|---|---|
| 2.2 | 2022 | 100.000 |
| 2.2 | 2023 | 175.000 |
| 3 | 2022 | 400.000 |
| 3 | 2023 | 200.000 |
| Total | | 875.000 |

Las ayudas contempladas en las presentes bases reguladoras no constituyen ayudas de estado por no existir afección a los intercambios entre Estados miembros y, en su caso, son compatibles con el artículo 107 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea.

Constituye el objeto del presente acuerdo el:

— Dividir la Línea 2 de proyectos de innovación social en las siguientes líneas:

Línea 2.1: dirigida a personas mayores.

Línea 2.2: dirigida a la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, al fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y a la inclusión social.

— Incluir la Línea 3-Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio, en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

— Aprobar las bases generales y específicas para las líneas 2.2 y 3.

— Aprobar la convocatoria 2022 para las líneas 2.2 y 3.

— Autorizar un gasto de 875.000 € correspondientes al presupuesto global de la subvención correspondiendo a este Consejo de Gobierno Foral la competencia para ello a la vista del gasto a autorizar.

Por todo ello, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Políticas Sociales, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Incluir la línea 3 de Proyectos implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio, que se financia con fondos europeos procedentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR) en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*Segundo.* Declarar la tramitación de urgencia del procedimiento de concesión de subvenciones objeto del presente acuerdo, según los dispuesto en el Real Decreto-Ley 36/2020, de 30 de diciembre, por el que se aprueban las medidas urgentes para la modernización de la Administración Pública y para la ejecución del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia.

EK\CV GAO-I-2022-06252

*Hirugarren.* Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planetik (BEEP) datozen Europako funtsekin finantzatzen diren berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onestea. Oinarri horiek erabaki honen I. eranskinean jaso dira.

Halaber, dirulaguntza lerro bakoitzari dagozkion oinarri arautzaile berariazkoak onestea erabakitzen da, ondoren adierazten den xede edo xedearen arabera, erabaki honi II. eranskin gisa batu zaizkionak:

— 2.2 lerroa: Gizarte berrikuntzako proiektu pilotuak haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko.

— 3. lerroa: Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko.

*Laugarren.* Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (BEEP) berrikuntza sozialeko proiektuak finantzatzeko diru laguntzen 2022eko deialdia onestea. Deialdi hori III. eranskin gisa erantsi zaio erabaki honi, honako dirulaguntza hauetarako:

— 2.2 lerroa: Gizarte berrikuntzako proiektu pilotuak haurrak eta nerabeak babesteko, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak babesteko, desgaitasunen bat duten pertsonen autonomia eta independentzia sustatzeko eta gizarteratzeko.

— 3. lerroa: Etxean zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berriak ezartzeko edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak finantzatzeko.

*Bosgarren.* 875.000 mila euroko gastu bat onestea, aurrekontu sail eta helmuga hauetan banatua:

*Tercero.* Aprobar las bases reguladoras generales para la concesión de subvenciones a proyectos sociales de innovación que se financia con fondos europeos procedentes del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), que se adjuntan al presente acuerdo como anexo I.

Asimismo, se acuerda aprobar las bases reguladoras específicas correspondientes a cada una de las líneas de subvención, según el objeto o destino que seguidamente se indica, que se adjuntan al presente acuerdo como anexo II:

— Línea 2.2: Proyectos piloto de innovación social para la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, el fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y para la inclusión social.

— Línea 3: Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio.

*Cuarto.* Aprobar la convocatoria 2022 de subvenciones a la financiación de proyectos sociales de innovación a través del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR), que se adjunta al presente acuerdo como anexo III, para las siguientes líneas de subvención:

— Línea 2.2: Proyectos piloto de innovación social para la protección a la infancia y la adolescencia, protección a mujeres víctimas de violencia machista, el fomento de la autonomía e independencia de las personas con discapacidad y para la inclusión social.

— Línea 3: Proyectos de implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio.

*Quinto.* Autorizar un gasto de 875.000 euros, con el siguiente desglose por partidas presupuestarias y destinos:

| | *Zenbatekoa (€)*<br>*Importe (€)* | *Kontu saila*<br>*Partida* |
|---|---|---|
| 2.2 Lerroa / Línea 2.2. Xedea 2022 / Destino 2022 | | |
| Berrikuntza soziala (kontingentzia guztietarako, nagusietarako eta mendekotasunerako izan ezik) 100.000 € / Innovación social (para todas las contingencias menos mayores y dependencia) 100.000 € | 25.000<br>25.000<br>25.000<br>25.000 | 1.0820.200.461.01.03.2022<br>1.0820.200.461.06.07.2022<br>1.0820.200.470.00.03.2022<br>1.0820.200.481.00.05.2022 |
| 2.2 Lerroa / Línea 2.2. Xedea 2023 / Destino 2023 | | |
| Berrikuntza soziala (kontingentzia guztietarako, nagusietarako eta mendekotasunerako izan ezik) 175.000 € / Innovación social (para todas las contingencias menos mayores y dependencia) 175.000 € | 43.750<br>43.750<br>43.750<br>43.750 | 5.0820.200.461.01.03.2023<br>5.0820.200.461.06.07.2023<br>5.0820.200.470.00.03.2023<br>5.0820.200.481.00.05.2023 |
| 3 Lerroa / Línea 3. Xedea 2022 / Destino 2022 | | |
| Etxeko zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berrien ezarpena/ Implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio | 400.000 | 1.0820.200.461.01.05.2022 |
| 3 Lerroa / Línea 3. Xedea 2023 / Destino 2023 | | |
| Etxeko zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berrien ezarpena/ Implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados en el domicilio | 200.000 | 5.0820.200.461.01.05.2023 |

Diru laguntzen ildo baterako gastu baimendua agortuko ez balitz, soberako zenbatekoak beste ildoetan aurreikusitako laguntzak osatzeko erabili ahal izango dira.

Deialdi honentzat hasieran aurreikusitako kopurua handitu edo txikitu egin dezake zenbatekoaren arabera horretarako eskumena duen organoak, dirulaguntzak emateko ebazpena hartu aurretik eta deialdi berririk egin behar izan gabe. Kopuru gehi-

En caso de que no se agotara el gasto autorizado con destino a alguna de las líneas de subvención, los importes sobrantes podrán ser utilizados para complementar ayudas previstas en otras líneas.

El importe inicialmente previsto en esta convocatoria podrá ser incrementado por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía, en cualquier momento anterior a la resolución de concesión y sin necesidad de una nueva convo-

EK\CV GAO-I-2022-06252

garria eraginkorra izateko baldintza izango da dirulaguntza ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitalpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2022ko urriaren 5a.— Imanole I. Eizmendi Galarza, Departamentuko idazkari teknikoa. (6252)

I ERANSKINA

*Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren (BEEP) barruan berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak emateko Oinarri arautzaile orokorrak.*

*1. oinarria. Dirulaguntzaren xedea.*

Oinarri hauen helburua Gipuzkoako Lurralde Historikoko berrikuntza sozialeko proiektuetarako dirulaguntzak ematea arautzea da, baldin eta Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planean (BEEP) ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza horiek bat datoz Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetza-hitzarmenean jasotako proiektuen zerrendako 4 15. proiektuarekin, Berreskurapenerako eta Erresilientziarako Mekanismotik datozen Europako funtsen kargurako proiektuak gauzatzeko. *Estatuko Aldizkari Ofiziala* 260 zbk, 2021eko urriaren 30a.

Hauek dira dirulaguntzen ildoak:

— 2.2 lerroa: Berrikuntza sozialeko proiektu pilotuak.

— 3. lerroa: Etxeko zainketa berritzaileak hobetzeko eta sustatzeko zerbitzu berrien ezarpena edo egungo zerbitzuak egokitzeko proiektuak.

*2. oinarria. Erakunde onuradunak.*

Honako erakunde hauek izango dira onuradunak:

a) Gipuzkoako Lurralde Historikoko toki-erakundeak.

b) Gipuzkoan kokatuta dauden Gizarte-ekintzako Hirugarren Sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakudeak, kooperatibak, fundazioak edo elkarteak.

c) Gipuzkoan kokatuta dauden erakunde publiko eta pribatuek, dirulaguntza eskatzen den zentroaren jarduerarekin zerikusi zuzena duten helburuak dituztenak eta zentro horretan eskubide errealen baten titular badira (gutxienez, erabilerakoa).

d) Gipuzkoan kokatuta dauden Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko enpresak eta erakundeak, beren jarduera 2.2 lerroko oinarri espezifikoan adierazitako esparru batean sartzen bada.

e) Aurreko letretan adierazitako erakunderen bat duten pertsona juridikoen taldeak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

catoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 5 de octubre de 2022.—La secretaria técnica del Departamento, Imanole I. Eizmendi Galarza. (6252)

ANEXO I

*Bases reguladoras generales para la concesión de subvenciones a proyectos de innovación social dentro del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).*

*Base 1.ª Objeto de la subvención.*

El objeto de las presentes bases es regular la concesión de subvenciones con destino a proyectos sociales de innovación del Territorio Histórico de Gipuzkoa que cumplan los requisitos establecidos en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia (PRTR).

Estas subvenciones se corresponden con el proyecto número 15 de la lista de proyectos incluidos en el convenio de colaboración entre el Ministerio de Derechos Sociales y Agenda 2030 y la Administración General del País Vasco para la ejecución de proyectos con cargo a los fondos europeos procedentes del Mecanismo para la Recuperación y Resiliencia, publicado en el *Boletín Oficial del Estado* núm. 260 de 30 de octubre de 2021.

Las líneas de subvención son las siguientes:

— Línea 2.2: Proyectos piloto de innovación social.

— Línea 3: Proyectos de Implantación de nuevos servicios o adecuación de servicios actuales para la mejora y fomento de los cuidados innovadores en el domicilio.

*Base 2.ª Entidades beneficiarias.*

Tendrán la consideración de beneficiarias las siguientes entidades:

a) Las entidades locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Las entidades, cooperativas, fundaciones o asociaciones sin ánimo de lucro y radicadas en Gipuzkoa, cuyo objeto o finalidad social corresponda al tercer Sector de Acción Social.

c) Las empresas públicas y privadas, radicadas en Gipuzkoa, cuyo objeto o finalidad social tenga relación directa con la actividad a desarrollar en el centro para el que se desarrolla la solicitud y sobre el que sean titulares del algún derecho real (como mínimo, el de uso).

d) Las empresas y entidades pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación radicadas en Gipuzkoa cuya actividad se integre en alguno de los ámbitos señalados en las bases específicas de la línea 2.2.

e) Las agrupaciones de personas jurídicas en las que se incluyan algunas de las entidades indicadas en las anteriores letras de conformidad con lo dispuesto en el artículo 10 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

EK\CV GAO-I-2022-06252

3. lerroan toki-erakundeak soilik izango dira onuradun.

*3. oinarria. Erakunde eskatzaileek bete beharreko baldintzak.*

3.1. Erakunde eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoaren, 12. artikuluaren 2, 3 eta 4. ataletan bildutako onuradun izateko debekuren batek ez eragitea.

b) Zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean edukitzea.

c) Egunean izatea Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismotik datozen Europako funtsen kargura emandako dirulaguntza eta aurretik emandako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko betebeharrean.

3.2. Aurreko atalean adierazitakoa egiaztatzeko, entitate eskatzaileak ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Adierazpen formal hori egitea nahikoa da entitate eskatzailea administrazio publikoa denean; aldiz, bestelako entitateek adierazpenean ageri diren datuak egiaztatu egin behar dituzte dirulaguntza emateko ebazpen proposamena egin baino lehenago, eta, horretarako, bost eguneko epea izango dute errekerimendua egiten zaienetik aurrera.

Gipuzkoako Foru Aldundiak dituen eskumenak erabiliz, eskakizunak betetzen direla eta, zehazki, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko behar diren kontsultak eta egiaztapenak egingo ditu.

*4. oinarria. Eskatutako dirulaguntzaren xede diren jarduketen betekizunak.*

Zainketen arloko berrikuntza-proiektuen jarduera Gipuzkoako Lurralde Historikoan garatuko da, salbu eta haren irismenak mugakide diren beste lurralde-eremu batzuk barne har baditzake.

4.1. Denbora-betekizunak:

Dirulaguntzaren xede diren jarduketak 2023ko urriaren 31 baino lehen amaitu beharko dira.

*5. oinarria. Diruz lagundu daitezkeen gastuak.*

5.1. Dirulaguntzen lerro bakoitzeko oinarri espezifikoetan zehaztuko dira dirulaguntza bakoitzaren xede diren jarduketak eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

5.2. Aintzat hartuko dira soilik dirulaguntzaren xede den proiektuarekin zalantzarik gabe identifikatu daitezkeen gastuak.

*6. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura.*

6.1. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagoka izango da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

6.2. Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, aurkeztutako eskabideak ebaluatzen dira, horien artean hautaketa bat ezartzeko, oinarri orokor hauekin batera doazen oinarri espezifikoetan modalitate edo laguntza-lerro bakoitzerako ezarritako balorazio-irizpideen arabera.

6.3. Laguntzak emateko prozedura ofizioz hasiko da, organo eskudunak onartutako eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiaren bidez.

*7. oinarria. Balorazio-irizpideak eta puntuazioak.*

7.1. Eskabideak honako irizpide hauen arabera puntuatuko dira:

a) Baldin eta oinarri espezifikoetan puntuazio objektiboko atalak badaude, aurreikusitako puntuazioak lortu ahal izango dira edo, hala badagokio, horien batura, atal bakoitzean aurreikusitako gehienekora iritsi arte.

En la línea 3 sólo serán beneficiarias las entidades locales.

*Base 3.ª Requisitos de las entidades solicitantes.*

3.1. Las entidades solicitantes deberán cumplir con los siguientes requisitos:

a) No estar afectadas por ninguna de las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria previstas en los apartados 2, 3 y 4 del artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

b) Estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social.

c) Estar al corriente del pago de las obligaciones de reembolso de subvenciones y de cualesquiera otros préstamos o anticipos concedidos anteriormente con cargo a los fondos europeos procedentes del Mecanismo para la Recuperación y Resiliencia.

3.2. La acreditación de lo señalado en el apartado anterior se efectuará mediante la presentación de declaración responsable por parte de la entidad solicitante.

En todo caso, si bien la formalización de dicha declaración será suficiente para las entidades solicitantes que sean administraciones públicas, el resto de entidades deberán acreditar la realidad de los datos contenidos en la misma con anterioridad a la propuesta de resolución de la concesión, para lo cual dispondrán de un plazo de cinco días a partir del requerimiento al efecto.

La Diputación Foral de Gipuzkoa efectuará en el ejercicio de sus competencias las consultas y verificaciones necesarias para la comprobación de los requisitos y, en concreto, el cumplimiento de las obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social.

*Base 4.ª Requisitos de las actuaciones para las que se solicita subvención.*

La actividad de los proyectos de innovación en materia de cuidados se desarrollará en el Territorio Histórico de Gipuzkoa con la excepción de que su alcance pueda incluir otros ámbitos territoriales limítrofes.

4.1. Requisitos temporales:

Las actuaciones objeto de subvención deberán finalizar antes del 31 de octubre de 2023.

*Base 5.ª Gastos subvencionables.*

5.1. En las bases específicas de cada línea se detallarán las actuaciones objeto de subvención y los gastos susceptibles de apoyo.

5.2. Solo se considerarán los gastos que puedan identificarse inequívocamente con el proyecto objeto de la subvención.

*Base 6.ª Procedimiento de concesión.*

6.1. El procedimiento de concesión de las subvenciones será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.

6.2. Mediante este procedimiento la concesión de las subvenciones se realiza evaluando las solicitudes presentadas, a fin de establecer una selección entre las mismas, de acuerdo con los criterios de valoración fijados en las bases específicas que acompañan a estas bases generales para cada modalidad o línea de subvención.

6.3. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente y publicada en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

*Base 7.ª Criterios de valoración y puntuaciones.*

7.1. Las solicitudes se puntuarán de acuerdo a los siguientes criterios:

a) Cuando en las respectivas bases específicas existan apartados de puntuación objetiva, se podrán obtener las puntuaciones previstas o en su caso, la suma de las mismas, hasta el máximo previsto en cada apartado.

b) Bestalde, atalen bateko puntuazioak balorazio kualitatibo bat behar duenean, balorazio global bat aplikatuko da, diruz lagundu daitekeen jarduera dagokion atalera egokitzen den baloratzeko, taula honen arabera:

| *Egokitasun-maila* | *Gehienezko puntuazioaren gaineko %* |
|---|---|
| Erabatekoa | 100 |
| Oso ona | 80 |
| Ona | 60 |
| Gutxiegi | 40 |
| Oso urria | 20 |
| Bat ere ez | 0 |

7.2. Baldintza guztiak betetzen dituzten eta lerro bakoitzeko oinarri espezifikoetan ezarritako gutxieneko puntuazioa lortzen duten eskabideak baino ez dira diruz lagunduko.

*8. oinarria. Finantzaketa.*

8.1. Hala badagokio, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren deialdiaren urteko Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira eman daitezkeen dirulaguntzak. Deialdiak ezarriko du zein aurrekontu-kredituren kontura finantzatuko diren dirulaguntzak.

8.2. Dirulaguntzaren xede den jarduera aurrekontu-ekitaldi batean baino gehiagotan garatzen bada, Gizarte Politiketako Departamentuak urte anitzeko gastu-espedientea izapidetuko du, aurrekontu-araudian ezarritakoaren arabera.

8.3. Oinarri hauetan erregulatutako dirulaguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gainditu onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

8.4. Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta, kasu orotan, dirulaguntza honekin batera beste laguntzaren bat ere jasoz gero, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu egin daiteke.

8.5. Diruz lagundu daitekeen jardueraren zenbatekoa emandako dirulaguntza baino handiagoa bada, diferentzia hori onuradunaren funts propioekin osatuko da, edo beste dirulaguntza edo baliabideetatik jasotako finantzaketarekin, baldin eta hori bateragarria bada, oinarrietan xedatutakoaren arabera.

*9. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

9.1. Dirulaguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera zehaztukoa da, betiere aurrekontu baliabideak eta oinarri hauetan ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta.

9.2. Entitate eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu banakatua edo ondorengo aldaketak erreferentziatzat hartuko dira dirulaguntzaren azken zenbatekoa zehazteko; zenbateko hori jardueraren kostu diruz laguntzarriaren portzentaje gisa kalkulatuko da, eta dirulaguntzaren azken zenbatekoak ezingo du hasieran emandakoa gainditu.

9.3. Dirulaguntzen ehunekoa eta gehieneko zenbatekoa, dirulaguntza lerro bakoitzeko zehaztuko da, proiektu motaren eta entitate eskatzailearen motaren arabera.

*10. oinarria. Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoa.*

10.1. Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, eta bertan parte hartuko dute Gizarte Politiketako Departamentuko kide hauek:

— Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuko burua.

— Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzuko burua, edo edo hark eskuordetzen duena.

— Plangintzako atalburua.

b) Por el contrario, cuando la puntuación de algún apartado precise de una apreciación cualitativa, se aplicará una valoración global, que valore la adecuación de la actuación subvencionable, al apartado en cuestión, de acuerdo a la siguiente tabla:

| *Grado de adecuación* | *% sobre puntuación máxima* |
|---|---|
| Pleno | 100 |
| Muy bueno | 80 |
| Bueno | 60 |
| Insuficiente | 40 |
| Muy escaso | 20 |
| Nulo | 0 |

7.2. Sólo se subvencionarán aquellas solicitudes que cumpliendo todos los requisitos alcancen la puntuación mínima requerida establecida en las bases específicas de cada línea.

*Base 8.ª Financiación.*

8.1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondientes al año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

8.2. Si la actuación objeto de subvención se desarrollase a lo largo de más de un ejercicio presupuestario, el Departamento de Políticas Sociales tramitará el correspondiente expediente de gasto plurianual, de conformidad con lo establecido en la normativa presupuestaria.

